



## OARGIREN HAMABOSTALDIA MARTXAN DA

BTT irteera eta Boulder Txapelketa izango dira gaur; ekitaldi ugari antolatu dituzte Tolosako mendi elkarteok 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2009-11-28**

VIIURTEA 1.839 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

# Topic guztientzat zabalik

**TOLOSA** Atzo inauguratu zuten erakundeetako ordezkariak Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa

**TITIRIJAI** Txotxongiloen 27. jaialdiari emango diote gaur hasiera Italia eta Quebec-eko bi emanaldirekin 2-3



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea gainerako erakundeetako ordezkariekin, zinta mozten, atzo Topic-en. 11.

**Baldintzarik gabe espetxeratu egin dute Mikel Aiestaran**

**VILLABONA** Ostegunean atxilotuetatik 13 pasa ziren epailearen aurretik 6

**Txaranga Eguna egingo dute Erramun Oiartzabali laguntzeko**

**TOLOSA** Abenduren 20an izango da; Erreteriko musikariak hemiplejia du 5

**Nafarroan euskal komunikabideei laguntza kendu die Gobernuak 7**

## Lehen urteurreneko eskaintza berezia

**SHUYANA**  
ESKINTZA


Eskolapioetako Lorategiak, 3 • 1A  
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Shuyana kosmetiko denda  
Korreo kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68

**Abenduaren 1etik 20ra  
%20ko deskontua makillaje eta kosmetikoetan**

Era berean, zerbitzu edota produktu bat erostean  
3 opari txekeren zozketan sartuko zara.

Lehen saria: 100 €  
Bigarren saria: 50 €  
Hirugarren saria: 25 €



# TOPIC JADA EZ DA UTOPIA



**Kultura** » Atzo egin zuten Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren inaugurazio ofiziala; gaur Titirijai jaialdiarekin hasiko dira.

**E. EZEIZA - I. TERRADILLOS**

Herenegun herritarrak izan ziren Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa estreinatzen lehenak. Atzo, berriz, agintarien bisita izan zuen Topic-ek. Eusko Jaurlaritzako Idoia Mendia eta Iñaki Arriola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haritz Solupe eta Maria Luisa Garcia, Espainiako Gobernuako Industria saileko Joaquin Abati, Kutxako Xabier Iturbe eta Mikel Irizar, PPren Antonio Basagoiti, Marta Dominguez atleta, Unimako hainbat ordezkari eta Tolosako Juan Garmendia Larrañaga, May Gorostiaga, Antxon Eloseggi edota Txetxo Gaztañaga izan ziren, besteak beste.

Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak eskerrak eman zizkien Topic erreallitate izateko laguntza eman duten oro-

ri, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak txotxongiloen funtzioa nabarmendu zuen: «Irudimena, somnena eta parte-hartzea bultzatzen dute, batez ere gazteengan eta horregatik da oso garrantzitsua proiektu hau».

#### Mugimendua egoitzan

Atzo iluntzean inauguratu zuten, beraz, ofizialki egoitza ohiko zinta mozketarekin. Jendearen joan-etorria, ordea, goizean goizetik izan zuen Topic-ek, herritarren artean kultur gune berriak ikusmina piztu duen seinale. Museo iraunkorra, erakusketak, aretoa edota egoitzaren beste guneak gertutik ezagutzeaz gain, beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera izan zuten, batez ere gaztetxoek, irekieraren bigarren egunean. Bateetik, goiz osoan zehar txotxongi-

loen tailerra izan zuten zazpi urte-tik gorako ehunka gaztek. Mari-na zentroaren irudia oinarri hartuta txotxongiloak egiten aritu ziren. Piezatxoak moztu, pintatu, gorpuzta osatu eta makiltxoak jartzen «oso gustura» pasa zuten goiza, eta gainera bakoitza bere txotxongilo-arekin itzuli zen etxera. Makillaje tailerrean ere gozatu egin zuten gazteek, txotxongiloen munduko pertsonaia desberdinez arpegia margotzeko aukera izan baitzuten. Gaur ere txotxongilo nahiz makillaje tailerrak izango dituzte.

Arratsaldean antzezlan ez bete zen Euskal Herria plaza, eta haurrek erraldoiek in batera kalejira ere egin zuten Plaza Zaharretik Euskal Herria plazaraino. Ikusizunek hartu zuten atzokoan, beraz, herria.

#### Gorostidikoak protestan

Inaugurazio ekitaldia baliatuz Gorostidi enpresako langileek elkarretaraztea egin zuten Euskal Herria plazan erakundeetako agintarien aurrean.



Txotxongiloen Zentroan Maliko erakusketa ikusten. E. EZEIZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# «Aretoa gustatu zaigu gehien»

MIRARI ALTUNA, NAROA ETA IRATI JAUREGI » Haurrak

## ERREDAKZIOA

Topic bisitatzen lehendabizikoak, egun hauean haurrak izan dira. Gainera, atzo eskolarik ez zutela aprobetxatuz, askok txotxongilo-en etxea bisitatzea erabaki zuten, gurasoen laguntzarekin. Hori bera egin zuten Mirari Altuna, Naroa eta Irati Jauregi.

### Zer bisitatu duzue?

Antzokian edo aretoan izan gara alde batetik, eta bestetik, goiko solairuetan, tailerrak zeuden tokietan.

### Tailerretan parte hartu al duzue?

Bai, goizean izan gara eta Mariona txotxongiloa egin dugu. Gero, makillajekora etorri gara arpegia margotzera.

### Eta, gustatu al zaizkizue?

Bai, asko.

### Zer da Topic-etik gehien gustatu zaizuena?

Aretoa, bertako eserlekuengatik. Kolore askotakoak direnez, oso politak dira.



I.T.

### Horrelakoa izango zela uste al zenuen?

Ez, ez genekien nolakoa izango zen. Baina asko gustatu zaigu.

### Errepikatzeko moduan? Berritzaile etorriko al zarete?

Bai, berritzaile etorriko gara. Gainera, asteartean ikastetxearekin etorri behar dugu Titirijaiko emanaldi-tako bat ikustera. Hala ere, lagunekin ere etorriko ginatke beste egunen batean.



Euskal Herria plazan izan ziren antzezlanetan jende ugari bildu zen. I.T.



Goizean txotxongilo tailerra egin zuten Topic-en. Irudian, gazte bat mariona txotxongiloarekin. I.T.



Makillaje tailerrak ere arrakasta handia izan zuen. Gaur ere egingo dute. ESTI EZEIZA



90 URTE BERRITZEN.  
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEN.

APROBETXATU EZAZU UNE  
HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Arriku arolarako aseguru zure Citroën berrian, errekaratu eta interesik gabe eta langabezi estaldura opari



GOZATU BAITA ERE C4,  
PICASSO ETA C5 MILLENNIUM  
EREDUEN SERIE BEREZIAN.  
MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.



CITROËN

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 7.300€tik

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

www.citroen.es

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

# Donostiako Orfeoia Jesusen Bihotza elizan izango da

**Villabona** » Azken egunetan elizaren mendeurrena dela-eta ospakizunetan dago Jesusen Bihotza eliza.

zabalik. Eta ospakizunen artean, gaur meza 18:00etan izango da eta 20:00etan Donostiako Orfeoia kontzertua eskainiko du Jesusen Bihotza elizan.

## 1909an eraiki zen eliza

Villabona herriaren eta Jesusen Bihotza elizaren historia jaso dute erakusketa batean, Jesus Maria Clemente Elizako komisioko kide denak kontatu digu.

Villabona herri bezala funtzionatzen 1343an hasi zen eta villa titulua 1480. urtean lortu eta bere Udala eskuratu zuen. Gerrak zirela-eta 1509. urtean udaletxea bi aldiz erre zuten eta berregin behar izan zuten. Elizaren lehen harria 1907. urteko abuztuaren 12an jarri zuten Aldekoa kaleko lurretan. Bi urte pasa eta gero, hau da, 1909ko azaroaren 26ean inauguratu zuten eliza eta bertan Udal ordezkariak, gotzaina, Foru Aldundiko diputatuak eta herritar asko izan ziren.

Bestalde, Villabonan zegoen ermita 1906. urtean bota zuten.

## Menu berezia irekiera egunean

Duela 100 urte ere, jateko orduan euskaldunek ez zuten muzin egiten eta Udalak, Tolosako Agedaja-tetxetik ekarrita menu berezia eskaini zuen: Ostrak, era askotariko zizka-mizka hotzak eta beroak, holandar zopa, oilgorrak espainiar erara, lupia, foie-gras-a, fruta budina eta era askotako azkenburukoak izan zituzten.

1909. urtetik euri asko egindu eta apaiza ugari pasa dira bertatik: Jose Antonio Muñagorri, Jose Jauregi, Juan Zabala, Mateo Arizmendi, Jose Baztarrika, Eugenio Zaldua edota azkenetarikoak diren Joxean Larrañaga, Mikel Elgezabal, Xabier Iturriz eta gaur egungo Bittor Gorria dira horietako batzuk. Bestalde, aldaketa batzuk jasan zituen elizak, 1960 eta 1990. urteetan egindako obrek.

## ENERITZ MAIZ

Villabonako Jesusen Bihotza elizak 100 urte bete ditu eta hilabete honetan, ospakizun ezberdinak egiten ari dira.

Azaroaren 17an hasi ziren Jose Antonio Pagolaren hitzaldiarekin eta azken ekintza igandean azaroaren 29an izango dute. Elizak dituen 100 urte hauen historia bilzen duen erakusketa prestatu dute eta ikusgai dago Gurea zinemaren. Haurrek ere erakusketa ikusi eta historia ezagutzeko aukera izan dute. Azken aukera, helduek ere erakusketa hau ikusteko aukera izango dute eta gaur eta bihar. 12:00etatik 13:00etara egongo da



Panel ezberdinetan, argazki eta testuen bidez elizaren 100 urte haueko historia jaso dute. E. MAIZ



## Ibartarrak dira onenak musean

**TOLOSA** » Ibarra losu Iparragirre eta Koldo Llorente izan ziren pasa den larunbatean Tolosan izandako IX. Mus Txapelketa Azkarraren irabazleak. Ibartarrek 1500 euro, txapelak, garaikurrak eta babarrun kilo bat eraman zituzten etxera. Bigarrenak, aldiz, Errezilgo Iñaki Ayerza eta Jose Mari Otaegi izan ziren. Hauek 800 euro, garaikurrak eta babarrunak irabazi zituzten. Guztira 128 bikotek hartu zuten parte. E. EZBEZA



## Adin guztientzako aukera

**LARRAUL** » Kultur Asteko ekintzak, arratsalde eta iluntzean izan zituzten. Haurrek merienda izan zuten Katillu-Txulo elkartearen eta haurren aitzakian, gurasoek ere, arratsalde bikaina pasa zuten. Ondoren altxorren bila jokoa egin zuten eta gauean, helduek mus txapelketa izan zuten. Gaur, 12:00etan pilota partidak izango dira eta ondoren bertso bazkari bikaina izango dute Andoni Egaña eta Xabi Paya bertsoariekin. Arratsaldean, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa egingo dute eta 18:00etan Teresa Lopez ipuin kontalaria Kultur Etxean izango da. E. MAIZ

infoZAZPI irratiaren aldeko  
dantza emanaldia

**Alurr**  
DANTZA TALDEA  
Ibarra



**Oinkari**  
DANTZA TALDEA  
Villabona



**Udaberri**  
DANTZA TALDEA  
Tolosa



Azaroak 28, larunbata  
22:30ean  
Villabonako Olaederra kiroldegian

Laguntzaileak: Villabonako Udala

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

**TEUSA**



FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA  
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK

Tel.: 943 401 340

teusa@teusa.com

www.teusa.com



Herenegun, Erramun Oiartzabalen familiakoek, lagunek nahiz pertsoaia ezagun askok agerraldia egin zuten, bigarren Txaranga Eguna aurkezteko asmoz. KLUSK

## Erramun Oiartzabal musikariari laguntzeko, bigarren Txaranga Eguna

**Gizartea** » Erreteriarrik hemiplejia bat du, eta bere tratamendua ordaintzeko erabiliko da abenduaren 20an lortzen den dirua.

### ERREDAKZIOA

Bigarren aldiz, datorren hilabetean, Txaranga Eguna ospatuko da Tolosan. Iaz, estreinakoz, Miguel Angel Azkarate *Petas*-i, zuen gaitotasunari aurre egiten laguntze-

ko asmoz antolatu zen jaialdia, Kabi Alai elkarteak bultzatuta. Aurten ere, musikari bati laguntzeko helburuarekin antolatu dute Txaranga Eguna. Oraingo honetan, biltzen den dirua Erramun Oiartzabal oreretarrari laguntzeko bideratuko da. Hau, Angel Azkarate iaz aurkitzen zen egoeraberean dago egun. Musikariak hemiplejia du, irailaren erdi aldera jasan zuen burmuineko infartu baten ondorioz. Ondorioz, bera sendatzeko behar den tratamendua oso

garestia da, erreabilitazio zentroaren kostua oso altua baita.

Beste hainbaten artean, Ekaitz eta Patxaranga txarangetan parte hartu du Oiartzabalek saxofoia joaz. Honez gain, beste zenbait musika talderen bultzatzaile izan da.

Txaranga Eguna abenduaren 20an ospatuko da, eta Kabi Alaikoek, ahalik eta jende gehiena elkartzea dute helburu. Honenbestez, hemendik egun gutxira jarriko dira salgai bazkariarako txartelak.

Hauak, Tolosan, Erreterian, Iruenen, Donostian eta Pasaian eskuratuko dira. Honez gain, laguntza eman nahi dutenentzat bi kontu korrante ireki dituzte, lehendabizikoa, Kutxan (21010022040127112951) eta bigarrean, Euskadiko Kutxakoa (3035 0026 26 026119578).

### Egun guztiko jai

Txaranga eguna goizetik hasiko dira ospatzen. 12:00ak aldera abiatuta, Tolosako kaleetatik barrena

### » TXARANGA EGUNA

#### Abenduak 20, igandea

■ **12:00.** Poteoa herriko tabernetatik, txarangekin eta musika taldeekin.

■ **14:00.** Txarangen bilkura Plaza Berrian.

■ **Ondoren.** Zerkausian, bazkari herrikoa.

#### Laguntza emateko kontu korrante zenbakiak

■ **Kutxa.**

21010022040127112951.

■ **Euskadiko kutxa.**

3035002626026119578.

alardea egingo dute. Ondoren, 14:00ak aldera, txaranga guztiak Plaza Berrian elkartuko dira, eta Zerkausira abiatuko dira. Han, herri bazkaria izango baita. Honez gain, txaranga, dultzainero, txistulari eta trikitilariak ere izango dira festan.

Erramun Oiartzabalen familiak, aldeztu aurretik bere esker ona agertu nahi izan diete tolosarrei, «erakusten ari diren elkartasunagatik». Babes horren adierazle da herenegun, Kabi Alai elkartearen egindako agerraldian bildu zen jendetza. Bertan, musikari, aktore, pailazo nahiz kirolari ezagunak ikusi ahal izan baitziren. Besteak beste hauek babesten dute: Tolosako Oria, Iraunkorrek, The Jones Brother's, Nekaeziñak, Berazubi eta Txapelaundi txarangek; Tolosako Bandak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak; Joseba Tapia, Amaia Zubiria, Karlos Jimenez, eta Pello Irizar musikariek; Iker Galartza, Oscar Terol, Andoni Agirregomezkorta, Miren Gojenola eta Joseba Usabiaga aktoreek; Pirritx eta Porrotx pailazoek eta Abraham Olano nahiz Iñaki Perurena kirolariek.



## SARIDUNAK

### ① Hotel Gaua

Trintxera nekazal ostatuko suitean **gaua eta gosaria** bi laguntzatzat

Kontxi Amondarain (Anoeta)




Tolosa - Azpeitia errepidea, 10.Km-a  
20737 - ERREZIL  
943 681 206 - 943 681 208  
www.trintxera.com

### ② Otordua

Baliarraingo **Zartagi** jatetxean bi laguntzako otordua

Amaia Askasibar (Elduain)



Erretore etxea - Herriko plaza z/g  
20259 Baliarrain  
943 163 076

### ③ Titirijai 09 bonuak

Titirijai 09 txontxongilo emanaldietarako helduen eta haurren **bonu bana**


Ramon Olasagasti (Tolosa)



### ④ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "**Ken Zazpi urte zuzenean**" 2 CD-DVD, bi harpidedunentzat

Izaskun Zarategi (Villabona)  
Axun Mujika (Villabona)



# Abian da jada Oargiren Mendi Hamabostaldia

**Tolosa** » Gaurko BTT irteera eta IV Boulder Txapelketa Herrikoia antolatu dituzte; bihar Malloak Irteera egingo dute.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Oargi Mendi Elkartek Mendi Hamabostaldia antolatu du. Urtero bezala merkatu txikia izango da eta baita hainbat proiektio ere abenduaren 11tik 17ra bitartean. Era berean, argazki lehiaketa ere antolatu dute.

Honekin batera, hala ere, ibilaldi desberdinak antolatzen jarraitzen

dute. Gaur bertan BTT irteera izango dute. 09:00etan irtengo dira Oargitik bertatik eta bazkari-rako bueltatuko dira. Irteera Ernioiko mendi ingurutik izango da. Era berean, gaur 15:00etatik aurrera IV Boulder Txapelketa Herrikoia egingo dute Oargin bertan. Lau maila izango dira: haurrena (16 urtetik beherakoak), gazteena (18 urtetik beherakoak) eta emakumeena, azkenik.

## Hilak 8ko ibaldia, bihar

Bihar berriz, hilaren 8an egin behar zuten eta eguraldiarengatik bertan behera geratu zen Mallo-

tara irteera egingo dute. 07:30ean irtengo dira Aralarko Malloatik eta handik autoz joango dira Al-biasura. Ibilbidearen iraupena 8 ordu ingurukoa izango da eta Gaintzan bukatuko dute.

## » MENDI HAMABOSTALDIKO EGITARAUA

### Proiektzioak

■ **Abenduak 9.** 19:00etan Oargin Antxon Zabalaren eskalatzeari buruzko proiektioa.

■ **Abenduak 11.** 19:00etan Oargin Christian Ravierren *Mi manera de ver el Pirineo y escaladas por el mundo* lana.

■ **Abenduak 14.** 19:00etan Oargin



lax ere Boulder Txapelketa Herrikoia egin zuten Oargin. A. IMAZ

Felix Baltistan Fundazioaren *Elkartasunean Mendi Bide* ikusentzuzkoa.

■ **Abenduak 15.** 19:00etan Oargin Alex Txiconen *Pilar Oeste del Mar-kalu* lana.

■ **Abenduak 17.** 19:00etan Oargin Manu Cordobaren *Libre y Atadoren* proiektioa.

### Merkatu Txikia

■ **Bihartik abenduaren 8a bitarte.** Material berria zein bigarren esku-koa bilduko due Oargin bertan. Asteleheneetik ostiralera 18:00etan 21:00etara zabalduko dute; asteburuetan eta jai egunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

# Mikel Aiestaran baldintzarik gabe espetxeratu dute

**Villabona** » Ostegunean 34 atxilotuetatik 13 igaro ziren epailearen aurretik, atzo ere ez zuten zeintzuk igaroko ziren zehaztu.

## ERREDAKZIOA

Atzokoan ere, ostegunean egin bezala, asteartean atxilotutako gazteetako batzuk Auzitegi Nazionalako Fernando Grande Marlaska epailearen aurretik igaro ziren inkomunikaturik.

Ostegunean 13 pasa ziren -Aritz Petralanda, Itxaso Torregrosa, Jon Ziriza, Amaia Elkano, Mikel Eskiroz, Jon Ligeruzana, Bittor Gonzalez, Goizane Pinedo, Oier Ibarguren, Eñaut Aiartzabal, Raul Iriarte, Oihana Fernandez eta Mikel Aiestaran billabonatarra- eta horietatik bi bakarrik utzi zituzten aske, Raul Iriarte eta Oihana Fernandez. Bigazteak, hala ere, astero auzitegian sinatu beharko dute, Espainiako mugak ezingo dituzte gainditu eta haien bizilekuaren berri eman beharko dute. «Talde terroristari laguntzea» egotzi die Grande Marlaska Auzitegi Nazionalako epaileak.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigigarbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

Gainontzeko gazteei «talde terroristako kide» izatea leporatu diete eta beraz baldintzarik gabe espetxeratu zituzten ostegun gauean, baita Mikel Aiestaran bera ere.

### Atzo ere berdin

Atzo ere, ostegunean bezala, Grande Marlaska epaileak ez zien defentsako abokatuei bere aurretik igaroko ziren lagunen izenik eman nahi izan. Goizaldean hasi ziren epailearen aurretik igarotzen, baina ez zuten ez zein ez eta zenbat pasako ziren zehaztu. Senitartero eta lagunek informazioa ukatzeak euren sufrimendua areagotu besterik ez duela egiten nabarmendu dute, baina hala ere ez dute inongo informaziorik jasotzeko aukera izan.

### Tratu txarrak salatu dituzte

Inkomunikatuak egon diren egunetan poliziaren eskutik tratu txarrak jasan zituztela salatu dute herenegun espetxeratuak izan ziren gazteak. «Bereziki presio psikologiko erabili zuten poliziak, besteak beste mehatxatuak eta irainduak izan zirelarik. Postura deserosoetan egotera behartuak ere izan ziren eta batzuk zenbait kolpe jaso» dituztela ere salatu dute. «Beste behin inkomunikazio egoera eskubiderik gabe utzi dituela herritarrek», salatu dute AAMtik.

Bestalde, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gogorazi duenez, astelehenean Migel Zalakin euskal preso billabonatarra erahil zuteneko 19 urte beteko dira eta beraz, omenaldia egingo diote.

# Mendi Asanbladak urteko azken ibilaldia egingo du bihar

**Alegia** » 09:00etan abiatuko dira eta hiru ordu eta erdi iraungo du; ondoren babarrun jatea egingo dute.

## ERREDAKZIOA

Alegiako Mendi Asanbladak urteko azken ibilaldia egin eta bazkideen eguna ospatuko du bihar. Ibilaldiari dagokionez, 09:00etan autobusa hartuko dute Lizartzara joateko eta handik Altzora joan eta

gero berriro Alegiara jaitsiko dira. Hiru ordu eta erdi ibilaldia izango dela aurreikusten dute Mendi Asanbladakoek.

Ondoren babarrun jatea egingo dute Intxurre elkartean. Dagoeneko 30 lagunetik gora izena eman dute eta gaur eguerdian bukatzen da epea izena emateko. Bazkariaren ondoren, aurten egin diren mendi ibilaldien argazkiak erakustreko asmoa dute. Bestalde, ohiko moduan, mendiko materiala zozketatuko dute bazkideen artean.

# Gizon Sareak ekintza burutuko du Donostian

**Tolosaldea** » Gizon Sareak emakumeen kontrako indarkeriaren aurka egitera animatzen ditu Tolosaldeko gizon guztiak.

## ERREDAKZIOA

Gizon Sareak, emakumeen aurka indarkeriaren aurka eta berdintasunaren aldeko gizon elkargueak, tolosaldeko gizon guztiak bihar Donostiako Gipuzkoa Plazan 11:00etatik 14:00etara burutuko duten *Bortizkeria irauli* ekintzan parte hartzeko deia egiten die.

Horiek horrela, bihar informazio mahaia jarriko dute Gipuzkoa Plazan, non talde guztien artean adostutako dekalogo bat banatuko

duten, «modu honetan genero indarkeriaren aurrean sareak duen iritzia aditzera emateko». *Bortizkeria irauli* leloa duen pankarta ere jarriko dute.

Gizon Sarea gizon talde ezberdinetan parte hartzen duten gizonen osatuta dago. Erreferente izan nahi dute gizonentzat, «modu kolektibo zein banakoan, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa har dezaten», esan dute.

Sarearen helburuen artean «Gizon Sarearen oinarriak eta ekintzak aditzera eman, kontzientziatze eta sentsibilizatze lanak gauzatu eta diskriminazioak eta bidegabekeriak amaitzeko ekintza publikoak sustatzea» aipatu dituzte sareko arduradunek.

# Muñagorriren Elkartasun Azoka abenduaren 12an hasiko da

**Berastegi** » Materiala abenduaren 1etik 4ra eta 9tik 11ra jasoko dute aparkaleku azpiko lokalean.

## ERREDAKZIOA

Aurten ere Berastegiko Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordeak Elkartasun Azoka antolatu du abenduaren 12tik 18ra, non bigarren esku materiala salduko duten. Azokaren helburua, «soberano edo erabiltzen ez ditugun gauzei etekina atera eta erabilpen berri bat ematea da», eskolako arduradunek esan dutenez. Izan ere, etxean objektu asko pilatu ohi dira, «alfer-alferrik ditugunak», eta horien berrerrabiltzea bultzatzea beharrezkoa dela diote antolatzaileek. «Arropa, jostailuak, libururak, altzariak... jasoko ditugu bertan salgai jartzeko eta horregatik erabili daitezkeen eta txukun dauden gauzak izatea eskatzen dugu», gaineratu dute.

### Prezio sinbolikoak helburu solidarioak lortzeko

Saltzen diren gauzek prezio sinboliko izango dute eta lortzen den dirua helburu solidario batera bideratuko dute.

Salmenta hasi baino lehen aparkaleku azpiko lokalean jasoko dute materiala ondorengo egun eta orduetan: abenduaren 1, 2, 3, 4, 9, 10 eta 11 16:30etik 18:30era.

Azoka, berriz, abenduaren 12tik 18ra izango da; abenduaren 12an 17:00etatik 19:30era, abenduaren 13an 11:30etik 13:30era eta abenduaren 14tik 18ra 16:30etik 18:30era.



Nabarrerria, Topagunea eta Bierrik Fundazioko kideek erantzun diote Nafarroako Gobernuari. HITZA

## Ttipi Ttapa eta Karrape Irratia diru laguntza jasotzeko aukerarik gabe

**Hedabideak** » Nafarroako Gobernuak diru laguntzarik gabe utzi ditu euskal hedabideak, «krisia» dela medio.

### ERREDAKZIOA

Nafarroako Gobernuak, Gabriel Urralburu (PSN-PSOE) presidentea zuela, Euskararen Legea sortu zuen 1986ean. Orduz geroztik, urtero, euskarazko hedabideentzat diru laguntza deialdi bat egon da. Xabier Azanzak, Euskarabideko zuzendariak, azaldu duenez, aurtentz ez da diru laguntza deialdirik egongo.

Eskualdean Ttipi Ttapa aldizkariak eta Leitzako Karrape Irratiak jaso izan dute laguntza hau. Bi komunikabide hauek Topagunean aurkitzen dira, eta hemendik «erabaki politikoa» baten aurrean aurkitzen garena salatu dute. Xedea? «Euskal Komunikabideak gutxiesten, euren langileak eta ordezkariek mespretxatuz, Nafarroako euskal komunitatea beste behin ere iraintzea bilatzen duena, bide batez legez ezarritako betebeharrari muzin eginez».

**9.587; 240.000 eta 0 euro**  
Nafarroako Gobernuak ordezkariek astelehenean bildu ziren. Bileran hartan ez zen erabaki euskaraz-

ko komunikabideentzako diru laguntzen deialdia egitea. Hurrengo egunean Xabier Azanzak Xorroxin Irratian hitz egin zuen, horren berri emanaz: «Kontua da, epezhain estu ibilita, oso beltz ikusten dudala».

Topaguneko, Euskarazko Hedabideetako eta Nafar-Preseko ordezkariek oharra ateratu zuten ondoren, beren kezka agertzeko. Azanzari uztailez geroztik «Euskarabidea agintzen aritu den 240.000 euroko laguntza» eskuratzeke, Nafarroako Gobernuak ez zuten eskatu zioten.

Euskarabideko zuzendariordea, Gobernuak ez duela diru laguntza deialdirik egingo aurtentz berretsi du.

Hezkuntza Departamentuak 240.000 euro inguruko diru laguntza omen zuten gordeta, aurrekontuetatik aparte. Euskarabideak handik pentsatua omen zuten diru laguntzak banatzea. Orain, ordea, Gobernuak «beste lehentasun batzuk» dituela azaldu du Azanzak, eta diru horri beste erabilera bat emateko asmoa duela. Erabakia Alberto Catalan Hezkuntza kontseilariari egotzi dio Azanzak, eta, Euskarabidea beste pertsona batek zuzenduko balu ere, ez litzatekeela aldatetarik izango ildo horretan.

Arazoak iaztik dator. 2009rako 9.587 euro besterik ez zituen gorde

Nafarroako Gobernuak. Carlos Perez-Nievas orduko Hezkuntza kontseilariak eta Xabier Azanzak behin eta berriro errepikatu zuten diru laguntzak desblokeatzea lortuko zutela, 240.000 euro inguru banatuko zituztela. Uztailean, hain justu, Euskarabideak diru kopuru hori eskuratu zuela adierazi zuten Azanzak eta Perez-Nievas. Baina UPNko Gobernuak blokeatu egin zuen diru saila, krisi ekonomikoari aurre egiteko beharrezko zela argudiatuta.

### «Ezerezean, emandako hitza»

Topagunea oso kritikoki agertu da hartutako erabakiarekin: «Ezerezean geratu da, beraz, Euskarabideak eta Hezkuntza Departamentuak urte osoan zehar, eta uztailean bereziki, emandako hitza. Deusestarako ez du balio urte osoan zehar aurtengo egoera konpontzeko inbertitu ditugun ordu eta ahalagin guztiak».

Hori horrela, Topagunetik alderdi desberdinei dei egin diete: «PSN, NABAI, EB, CDN eta nola ez, UPNri, dei egiten diegu datorren urtean euskarazko hedabideok aurtentz jasan dugun kolpe latz hau, neurri batean behintzat konpentsatzeko, aurrekontuan ezarritako 250.000 euroko partidaz gain, aurtengo uztailean hitz emandako beste 240.000 gorde ditzatela helburu horretarako».



Buruz-buruko lehia ikusgarria hasiko da abenduaren 7an Tolosan. HITZA

## Oinatz Bengoetxeak BBK III. Masters-ean jokatu du

**Leitza** » Bengoetxea VI.ak Xalaren aurka jokatu du final-laurdenetan, abenduaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan.

### A. IMAZ

BBK III. Masters-a aurtentz Tolosan jarriko da martxan, abenduaren 7an. Masters-ean sei pilotarik hartuko dute parte: Gonzalez, Xala eta Martinez de Irujo Asperen aldetik eta Olaizola II.a eta Oinatz Bengoetxea Asegarcetako ordezkariek gisa.

Azken pilotaria, sei garren, Asegarcetik irtingo da. Izan ere, Begino eta Patxi Ruizek elkarren aurka aurre-kanporaketa bat jokatu beharko dute.

Irabazleak ondoren Sebastianen aurka jokatu beharko du lehen final-laurdena. Bigarrena Oinatz Bengoetxearen eta Xalaren artekoa izango da. Leitzarrak abenduaren 12an jokatu du Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Aimar Olaizola eta Juan Martineze de Irujo finalerdietan aurkitzen dira jadanik.

### Irabazleak 18.000 euro

BBK III. Masters-a frontoi osoan jokatu den buruz-buruko txapelketa da. Galtzen duenak ez du bigarren aukerarik edukiko. Sakearekin berdina, pasa egiten duenak ez du bigarren sakerik edukiko. Irabazleak 18.000 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 12.000 eurokoa. Finala abenduaren 26an jokatu du.

## Ibarrak 320 kiloko finalean tirako du gaur

### A. IMAZ

Lauko Euskal Herriko Sokatira Txapelkaren finala gaur jokatu da Abadiñon 17:00etan. 320 kiloko mailan bi jardunaldi jokatu dira aurretz eta lehen sei talde indar-

tsuenek jokatu dute azken lehia. Bertan Ibarra egongo da, bosgarren aurkitzen baita sailkapen nagusian. Iaz bezala, txapela janzteko aukera gehien Abadiño A taldeak dauka.

### » NORDA NOR?

■ **Euskararen Legea.** Nafarroako Gobernuak hiru helbururekin onartu omen zuen 1986. urtean:

- 1- Euskara ezagutzeko eta erabiltzeko herritarrek duten eskubidea babesteko.
- 2- Euskararen berreskuratze eta garapena babesteko.
- 3- Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzeko, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren

arabera. Gauzak honela, Nafarroa 3 zonaldetan banatzen du legeak: euskalduna, ez euskalduna eta mistoa.


■ **Xabier Azanza.** Euskarabideko zuzendaria da.

■ **Euskarabidea.** Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren baitan dagoen Euskararen Nafarroako Institutua da.

■ **Hezkuntza kontseilaria.** Alberto

Catalan (UPN) da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilaria. Aurretz, CDNko Carlos Perez-Nievas zen. Baina 2009ko irailaren 28an, bi alderdiek gobernu ituna hautsi zuten eta CDN gobernutik at galditu zen.

■ **Topagunea.** Euskara Elkartearen Federazioa da eta euskarazko hedabideak hor aurkitzen dira, Ttipi Ttapa eta Karrape Irratia barne.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialdea, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Titirijai

■ **Ibarra.** 11:30ean Kultur Etxea Quebec-eko Theatre de deux mains txotxongilo taldeak *Juanito y el pobre diablo* obra eskainiko du.  
■ **Tolosa.** 17:00etan Topic-en Italiako L. Asina sull Isola txotxongilo taldeak *Al señor Rodari* obra eskainiko du eta 20:00etan Leidor aretoan Quebec-eko Sans Fil taldeak *La corona del destino* obra.  
■ **Tolosa.** Titirijai jaialdiko erakusketa: *Quebec-era leihoa*, Aranburu jauregian. Abenduaren 6ra arte egongo da zabalik.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosa kantari Tonto kaletik 12:00etan abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar. Betiko euskal kantak abestu nahi dituzte nentzat irekia.  
■ **Tolosa.** Txuleta-ren Festa abenduaren 5etik 8ra, Zerkausan eta Astelena, Bete Alai, Botarri, Bide eta Usabal jatetxe eta sagardotegiaren 40 eurotan. Izena emateko, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edota *tour@tolosaldea.net* helbidera idatzita.  
■ **Villabona.** Euskal Herriaren Euskaraz-en festa: 11:00etan hamaiketako (tortila ezberdinak, txorizo egosia, urdaiazpikoa, sagardoa, ardoa...), bitartean *Euskaraz biziz, Billabona eta Euskal Herri euskalduna eraiki!* leloarekin pareta margotuko dute, 13:30ean kalejira-trikipettoa herriko kale eta tabernetan zehar.

### Ikuskizunak

■ **Villabona.** Oinkari, Alurr eta Udaberri dantzari taldeen emanaldia Olaederran 22:00etan.

### Musika

■ **Tolosa.** Basque country phraons eta La otra gloria taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.  
■ **Villabona** Donostiako Orfeoia-ren kontzertua Jesusen Bihotz Sakratuaren elizan 20:00etan, bere mendeurrenean.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Si la cosa funciona* filma Leidor aretoan 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Bigarren Argazki Rallyko lanen erakusketa ikusgai dago Gurea aretoan. E. MAIZ

## Aizkardiren Mendi Astea, azken txanpan

**Villabona** » Bihar haur eta helduei zuzenduriko ibilaldia egingo dute; ondoren, bazkariarekin emango diote amaiera.

### ERREDAKZIOA

Aizkardi mendi elkartearen Mendi Astea bere amaierara iristear da. Aste osoan zehar hainbat ikuskizun eta proiektio antolatuta dituzte mendizale guztientzat eta astebururako ibilaldiekin biribildu nahi dute egitaraua. Hain zuzen ere, haur eta helduei zuzenduriko ibilaldia antolatuta dute; 08:30ean abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. Eta, ondoren, bazkaria egingo dute denek.

**Bigarren Argazki Rallyko parte-hartzailean lanak** Mendiko 2. Argazki Rallyko lanen erakusketa Gurea aretoan dago ikusgai. Atzo iluntzean banatu zituzten sariak. Azaroaren 15ean izan zen Rally-a eta aurten 25 lagunek hartu zuten parte bertan. Gipuzkoako leku ezberdinetatik gerturatu ziren Villabona inguruko txoko eta bazterrak ezagutu eta argazkietan jasotzeko asmoekin.

Aizkardiko Mendi Asteko egitarauaren baitan, Villabonatik igaro dira Unai Zendoia, Oskar Porrás eta Arkaitz Lasa; Fidel Mendiz, Unai Aranburu, Ibai Iriarte eta Aitor Bartolome. Guztiei esker beste urte batez, mendi aste osatu eta arrakastatsua lortu dute.



## P Publikerreportajea: Zeu ileapaindegia

# Asteartetik aurrera ordutegi zabalagoa eta taldea berrosatuta

**Tolosa** » Zeu ileapaindegian koloreetan azken teknikak, ilea eta buruazalerako tratamenduak, tokaduak, makillaje profesionala, era guztietako lanak,... eskaintzen dituzte.

Zeu ileapaindegia bere ordutegia ordubetez zabalduko du abenduaren 1etik aurrera: asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 19:00etara jarraian eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara izango dira, beraz, bezeroaren zerbitzura. Gainera, lantaldea berreskuratu dute eta aurrerantzean Ainhoa Zumetak, Koro Garciak, Izaskun Arrezibitak eta Nagore Bordak osatuko dute profesionalen taldea.

Zeu ileapaindegia eskaintza zabala eskaintzen die euren bezeroei, zerbitzu osoa eta profesionala emate aldera. Tratu pertsonalizatua ahaztu gabe koloreetan Ingalaterratik datozten azken teknikak erabiltzen dituzte; teknika hauek kimikoki kolorazioan punta-puntakoak dira, koloreen irisatzea deritzona, hain zuzen.

Bestalde, tratamendu mailan ilearentzat eta larruazalarentzat infusioak erabiltzen dituzte. Permanententzat ere teknika zaharberriak aplikatzen dituzte, era askotarikoak gainera. Honi guztiari ilearentzat Euskal Herritik eta Londresetik ekarritako apaingarriak (tokaduak) dituztela batu behar zaio. Etxerako produktuak ere saltzen dituzte Zeu ileapaindegian.

Modariatenzio berezia prestatzen diote Zeu ileapaindegian, hori bai, beti bezeroari hobekien dagokionari erreparatu eta nahi duena errespetatuz. «Bakoitza eroso sentitzea lortu nahi dugu eta egindako lana ahalik eta iraupen luzeena izatea», dio Ainhoa Zumetak. Honi lotuta, makillaje profesionalako produktuak ere badituzte bezeroen eskura.

### Era guztietako lanak eta beharpenak

Adin eta jende mota guztiei zuzenduriko eskaintza dute Zeu ileapaindegian. Promozio bereziak ere egiten dituzte; Hala, 25 urtetik behar koentzat, %20ko beherapena dute eta familia ugariarentzat, berriz, %10ekoa. Erraztasun eta aukera guztiak dituzte, beraz, Zeu ileapaindegian.

